

## 4. IRABAZI ITURRIAK

Gure aplikazioa bezeroentzako dohainekoa izango da, aplikazioa deskargatu eta erabiltzen hasi daitezke ezer ordaindu gabe. Baina badaukagu ordaindu behar izando duten atal bat; premium izatea. Bezero premium izateko, hilabetero 2,99 euro ordaindu beharko du erabiltzaileak eta ordainketa hori egitean hurrengo abantailak izango ditu: ez dira iragarkirik agertuko, denda berezietan erosi ahalko dute eta horrez gain denda arruntetan deskontu bereziak izango dituzte.

Ordainketak egiteko hurrengo aukerak dituzte: transferentzia, bizum, paypal edo txartela erabiltzea. Gaur egun gehienentzat erosoagoa da teknologiaren bidez egitea, adibidez, ordainketak ordenagailu edo mobil bidez egin daitezkeelako.

Diru sarrerak aplikazioan agertzen diren iragarkiengaitik, beste denda batzuen arropa saltzeagatik eta bertsio premium-agatik lortzen ditugu.

Alde batetik kontuan izan behar ditugu aplikazioa sortzea eta mantentzea kostatzen zaiguna, beste alde batetik garrantzitsua da zer nolako prezioak dituzten beste aplikazio lehiakide batzuk, baita ere kontuan izan behar dugu gure aplikazioa zerotik hasiko dela eta horren ondorioz ez duela inolako ospea orduan prezioak finkatzeko ez ditugu oso prezio altuak jarri nahi.

Iragarkiak:

50€ egunean → 1500€ hilean

Premium bezeroak:

1000 x 2,99 = 2990€ hilean

Arropa salmenta:

saldutako %15

**GUZTIRA:** 4490€ + arropen salmenta hileko. (Hurrengo hileetan bezero gehiago estimatzen dira beraz etekinak handiagoak izango dira.